



2020-2021

IKASTURTEAREN

ANTOLAKETA



ONGI ETORRI

Ongi etorri

2020-2021 ikasturtearen atarian eta ez-ohiko egunerokotasunean gauden honetan, ikasturtearen antolakuntzaren berri eman nahi dizuegu. Beti bezala, familia eta ikasleei ahalik eta erantzun egokiena emateko helburuarekin lanean dihardugu.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak eta Osasun Sailak lehenetsi dituzten irizpide orokorrak jarraitu ditugu 2020-2021 ikasturtearen antolakuntza zehazteko garaian, eta unean uneko egoerak eskatzen duenaren neurrien berri ematen joango gatzaizue.

Aldez aurretik, eskerrik asko zuen guztion ulermenagatik.

HAS DADILA IKASTURTE BERRIA!

IKASLEENTZAT MEZUA

Ikasleei esan nahi diegu, lasai etortzeko eskolara. Badakigu denbora igaro dela eskolan egon zineten azken egunetik, eta zuen lagunak ikusteko irrikitan zaudetela, baina garrantzitsua da, distantziak mantentzea eta eskolan zehar dauden gel hidroalkolikoak erabiltzea eskuak garbitzeko. Zain gaituzue!



DENON
KONPROMISOA
EZINBESTEKOA DA

Denon konpromisoa ezinbestekoa da

Ikasturte honetan ezinbestekoa izango da segurtasuna bermatzeko hainbat neurri errespetatzea eta La Salle Zarautz osatzen dugun guztion konpromisoa. Horrexegatik, nahitaezkoa izango da Osasun Saitetik jakinarazitako irizpideak betetzea:

1. Ikasleek ezin dute eskolara etorri sukarra ($>37^{\circ}\text{C}$) badute. Hala, **ikasleei tenperatura hartu behar zaie etxean, eskolara etorri aurretik etxean.**
2. **Pertsona bakarra** etorriko da eskolara ikaslea **ekarri eta jasotzera**, eta ahal den neurrian, pertsona bera izango da beti. Pertsona honek eskolan sartu ahal izateko, aldeztu aurretik hitzordua eskatu beharko du.

3. LH 1-etik aurrera ikasle guztiek izan beharko dute beren **musukoa**.
4. Ikasle batek sintomak baditu eskolan, berehala familiari jakinaraziko zaio.
5. Ikasleak sintomak baditu eskolan, familiak tutorea jakinaren gainean edukiko du.

Denon konpromisoa ezinbestekoa da

Covid jarraipen taldea

Eusko Jaurlaritzako protokoloak ezarri bezala, La Salle Zarautz eskolan Covid jarraipen taldea egongo da, eta pertsona bat izendatu da COVID 19-arekin lotutako gaietarako.

Covid-gela, sarrera nagusiko Harrera gela izango da.

Kudeaketa

Eusko Jaurlaritzako protokoloa jarraituz, **bizikidetza-talde egonkorak** eratuko dira, kasu positibo bat agertuz gero, kontaktuen miaketa azkarra egin ahal izateko. Horrela, HH eta LH 1-2 kasuetan ikasgelak izango dira bizikidetza talde-egonkorak eta LH3-DBH4 bitartean berriz, mailak eratuko dute bizikidetza taldea.



IKASTURTE HASIERA

Ikasturte hasiera

- HH, LH eta DBH 1-2 mailen lehen eguna IRAILAK 11 da. Egun horretako ordutegia honakoa da:
 - HH3 - 11.30-13.00 (Ate irekiak)
 - HH4-LH6 - 9.00-11.00
 - DBH 1-2 - 10.00-11.30
- DBH 3-4 mailen lehen eguna IRAILAK 15 da. 10.00-11.30

Ikasturte hasiera

2020-2021 ikasturteko ESKOLA EGUTEGIA



IRAILA

Al	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

URRIA

Al	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

AZAROA

Al	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

ABENDUA

Al	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

URTARRILA

Al	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

OTSAILA

Al	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28

MARTXOA

Al	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

APIRILA

Al	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

MAIATZA

Al	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

EKAINA

Al	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

UZTAILA

Al	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

ABUZTUA

Al	Ar	Az	Og	Or	Lr	Ig
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

eskola egunak / días de clase

jai egunak / festivos

goizez bakarrik / sólo por la mañana



ORDUTEGIA ETA SARRERA-IRTEERAK

Ordutegia

Ikasturte honetan berebiziko garrantzia izango du orduan iristeak, sarrerak eta irteerak modu mailakatu eta ordenatuan ahalbidetzeko.

HH eta **LH**: 9:00-12:25 eta 14:30-16:25

DBH: 8:00-12:05 eta 13:30-15:20
(Asteazkenetan 8:00-13:40)

- DBH-n honako ordutegia ezartzearen arrazoiak honakoak izan dira:

Batetik, ikaslearen jarraipenari begira eskolan denbora gehiago egoteak zerbitzu osoagoa eskaintzea bermatzen digu, alegia, erantzun hobeagoa ematea. Bestetik, garrantzitsua deritzogu ikasleei aire freskoa hartu, ikasgelatik atera eta bertan ditugun instalazioetan lasai egoteko aukera emango dien etenaldia egiteari. Izan ere, gure helburu nagusia ikasleen segurtasuna, osasuna eta errendimendua bermatzea dira, horrek gure lan karga areagotzen badu ere; egoerak horrela agintzen du.

Sarrera-Irteerak

Ikasgela bakoitzak bere sarrera-irteera gunek izango ditu.

- **HH - 2** (Ohiko sarrera-irteera)

- **HH 3** (zona 1)

HH 4 (zona 2)

HH 5 (zona 3)

- **LH 1** (zona 7,8)

LH 2 (zona 11,12)

LH 3 (zona 18)

LH 4 (zona 17)

LH 5 (zona 13,14)

LH 6 (zona 9,10)


- **DBH 1** (zona 11,12)

DBH 2 (zona 7,8)

DBH 3 (zona 13,14)

DBH 4 (zona 9,10)

Sarrera-Irteerak





ZERBITZUAK:
JANGELA, AUTOBUSA
ETA ZAINZA

Jangela

Beti ere, ikasleen segurtasuna bermatzeko eta ikasleen artean 1,5 metroko distantzia egoteko, eskolan bertan eremu ezberdinak ahalbidetu dira.

Irailaren 14tik aurrera eskainiko da jangela.

Ordua

Lekua

	2 urte D	Jangela	Liburutegia	LH 1-2
11:50-12:20	HH 2			
12:05-12:30		DBH 2-3	DBH 1	
12:30-12:55	HH 3	HH 4-5	DBH 4	LH 1-2
13:00-13:25		LH 3-4		
13:30-13:55		LH 5-6		

Autobusa

Ikasleek **autobusean eserleku jakinak** edukiko dituzte eta nahitaezkoa izango da uneoro ikasle guztiek eta gainerako langileek musukoa erabiltzea. 6 urtetik beherako ikasleentzat ez da derrigorrezkoa erabiltzea, baina ahal den heinean erabiltzea ere gomendatzen da.

Aurrerago helaraziko da eskola garraioaren informazioa xehetasun guztiekin.

*Zarauzko La Salletik eskolara oinez eta bizikletaz etortzeko gonbitea luzatzen dizuegu.

Zaintza

7:30etatik 9:00etara mantenduko da sarrera malguekin.



ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

Eskolaz kanpoko jarduerak

Eusko Jaurlaritzak eratutako protokoloan zehazten den moduan, **ikasturtearen hasieran eskolaz kanpoko jarduerarik ez da antolatuko.**

Pandemiaren bilakaeraren arabera eta unea iritsiko balitz, zein baldintzatan antola daitezkeen jakinaraziko da; nolanahi ere, irizpide orokor gisa, eskolako ohiko bizikidetza-taldeei eusteari eta kontaktu fisikorik ez dakarten jarduerari lotuta egongo dira.



BESTELAKO INFORMAZIOA

Bestelako informazioa

- Ikasturte hasierako **guraso bilerak** online egingo dira eta guraso bakoitzari bidaliko zaio bileraren esteka.
- **Ikas materiala** mailaz maila bideratuko da.

Edozein zalantza izanez gero, idatzi lasai
helbide honetara:
idazkarizarautz@lasalle.es & 943 13 00 60

